

68. EUSKAL SOZIOMETROA: KULTURA DEMOKRATIKOA (2018ko abendua) Prensa oharra

SARRERA

68. Euskal Soziometro honen gai nagusia Kultura demokratikoa izan da. Egoera ekonomiko eta politikoarekin lotutako beste alderdi batzuk eta ordutegi aldaketarako Europako Kontseiluaren proposamena ere aztertu dira. Landa-lana 2018ko irailaren 25etik urriaren 6ra bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoeraren pertzepzioak hoberako joerari eusten dio

Euskadiko egoera ekonomikoaren pertzepzioak 2013an hasitako goranzko joera positiboari eusten dio. Herritarren %66ren ustez egoera ona edo oso ona da; 2007tik daturik onena da eta aurtengo udaberrian jasotakoarekin bat dator.

Espainiako egoera ekonomikoari buruzko iritzia okerra izaten jarraitzen du. EAeko herritarren %77ren ustez txarra edo oso txarra da, eta bakarrik %18ren iritziz ona edo oso ona.

Euskadiko egoera politikoaren balorazioak ez du aldaketarik jaso azken urtebetean, %57k diote ona edo oso ona dela, eta %35ek txarra edo oso txarra. Kasu honetan ere Espainiako egoeraren pertzepzioa okerragoa da, azken urteetako ildoari jarraiki: %80k uste dute txarra edo oso txarra dela eta %11k bakarrik ona edo oso ona dela.

Herritarren ustez Euskadiko arazo nagusiak berriz ere lan-merkatuarekin lotutakoak dira (%66k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean), eta maila dezente apalagoan etxebizitza eta etxe-gabetzeak (%14), pentsioak (%13), immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (%12), egoera politikoak, politikariak eta gatazka politikoak (%11) eta arazo ekonomikoak (%10). Azken neurketarekiko arazoak izan duten bilakaerari dagokionez, immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak igo dira eta gainerakoek ez dute aldaketa esanguratsurik jaso.

EAE eta Estatuaren artean arazo nagusiek duten pisuan desberdintasun nabariak mantentzen dira, CISEk emandako datuen arabera: arazo ekonomikoak (%10 EAEen eta %24 Estatuan); egoera politikoak, politikariak eta gatazka politikoak (%11 eta %48, hurrenez hurren); ustelkeria eta iruzurra (%3 eta %31, hurrenez hurren); osasungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantzza, osasuna (%5 eta %11, hurrenez hurren). Dena den, lehen aipamena lan merkatuari lotutako arazoak dira, EAEen %66 eta Estatuan %67.

KULTURA DEMOKRATIKOA

Demokraziaren aldeko jarrera nagusia baina bere funtzionamenduarekiko poztasun eza

Beste pertsonetik izan daitekeen konfiantzari dagokionez, herritarrak zatituta agertu dira 1996tik gaur arteraino: %55ek uste dute *inoiz ez garela behar bezain zuhurrak izaten* eta %41ek uste dute *pertsona gehienengan konfiantza izan daitekeela*.

Jendeak nagusiki bere buruaren alde egiten duen ala gehienetan besteei laguntzen dien galdetutakoan (0tik 10erako eskalan, non 0ak nagusiki bere buruaren alde egiten duela eta 10ak gehienetan besteei laguntzen diela esanahi duten), 4,7ko puntuazio jaso da (4,2 Espainian). Bestalde, herritarrek uste dute badutela euren bizitzaren gaineko erabakietan nolabaiteko askatasun eta kontrol ahalmena (6,5ko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan), 2015etik ez da aldaketarik jaso.

Legitimazio sozial gutxiago gizarre-portaeren onarpenari dagokionez, tolerantzia mailarik eskasena ondoko portaerek izan dute: *lanera ez joan gaixotasun baten aitzakian* (ezin dela onartu deritzote %92k), *diru truke lan egin eta aldi berean langabeziagatik laguntzaren bat jaso* (%86k), *diru-sarrera guztiak ez deklaratu PFEZ zergan* (%84k), *ordaindu gabe sartu metroan, autobusean, trenean eta abar* eta *delitu bat ikusitakoan ez salatu* (%80k bietan), *zigarroa erre baimendurik ez dagoen toki publikoren batean* (%75ek), *abiadura muga gainditu errepidean* (%73k), *debeku seinaleak ez bete, hala nola, 'pasatzea debekatua', 'akanpatzea debekatua', 'erreka honetan bainatzea debekatua' eta abar* (%72k) eta *merkatari edo profesional batekin hitzartu BEZa ez kobratzea produktu edo zerbitzu batengatik gutxiago ordaintzeko* (%67k). Aldiz, *hala eskatu duen gaixo senda ezin bati hiltzen lagundu (eutanasia)* biztanleen %69k neurri batean onar daitekeela diote eta %25ek soilik ezin dela onartu. Eutanasiaren aldeko iritzi hau jaitsi egin da azkeneko hiru urte hauetan. Bestetik, oro har, gizarre-portaerak berdintsuak dira EAEen eta Estatuan, CISEn datuen arabera.

Gehiengoak (%82) sistema demokratikoaren alde egin du eta iritzi hau hazi egin da azken urteetan. Dena den, hamar biztanletik seik baino ez dute adierazi pozik daudela egun Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin (%59), eta laurdena soilik dira pozik Espainiako demokraziaren funtzionamenduarekin (%24). Halaber, gehiago dira Euskadin giza eskubideen errespetuarekin pozik daudenak (%63), Espainian duenarekin pozik daudenak baino (%34). Demokraziaren funtzionamenduarekin zein giza eskubideen betetze mailarekin gainerakoek baino nabarmen poztasun txikiagoa adierazi dute EH Bilduren boto emailleek, bai Euskadiri buruz, bai Estatuari buruz. Galdera bietan, bildumako daturik onenen mailan mantentzen dira poztasun mailak Euskadiri dagokionez.

Euskal politikagintzaren inguruan iritzi hedatuak dira *erreferendumak metodo ona direla gai politiko garrantzitsuak erabakitzeko* (%71 ados) eta *alderdi politiko bakar batek ere ez dituela konponbide egiazki berriak eskaintzen* (%66). Aldiz, askoz gutxiago dira *alderdi politiko guztiak berdinak direla* eta *herritarrek benetako eragina dutela gobernuek hartzen dituzten erabakietan* (%38 eta %24, hurrenez hurren) uste dutenak.

Herritarren %41 libre sentitzen dira jendearekin politikaz hitz egiteko, beste %40 soilik pertsona batzuekin eta %14 ia inorekin ere ez; 2010etik ez da aldaketa esanguratsurik izan. Bestalde, familiarekin, lagunekin, lankide edo ikaskideekin politikaz hitz egiten dutenen portzentajeak (%43, %42 eta %27) beherantz egin dute 2015etik.

Ekimen sozio-politikoetan zein elkarte eta taldeetan parte-hartzea nabarmena da

Biztanleen erdiek baino gehiagok (%58k) azken urtebetean parte hartu dute galdetutako ekintza politiko edo sozialetakoren batean: %40k manifestazioren batean parte hartu dute, %35ek eskaera aldarrikatzailearen bat sinatu dute, %25ek grebaren batean parte hartu dute, eta abar. Laburbilduz, horietatik %27k ekintza mota bat edo bitan parte hartu dute, %18k 3 edo 4 motatan eta %13k 5 ekintza mota edo gehiagotan. Oro har, 2008arekiko ekimen sozio-politikoetan parte-hartzea igo da.

Talde eta elkarteetako kide izateari eta parte-hartzeari dagokionez, %40k diote aktiboki parte hartzen dutela elkarte edo talderen batean, aldiz, %23 ez dira inoiz kide izan; %10 kide dira baina ez dute parte hartzen, eta %26 iraganean kide izan dira baina orain ez. Elkarte edo talde hauetan parte hartzen du gehien jendeak: kirol taldeak (%40 kide da edo inoiz izan da), kultur edo aisialdiko elkarteak (%31), sindikatu edo enpresari elkarteak (%23) eta gizarte laguntza edo giza eskubideen inguruko elkarteak (%23).

Ikasketa-maila igo ahala, ekimen sozial eta politikoetan zein elkarte eta taldeetan kide izan edota parte hartzen dutenen kopurua igotzen da. EAE, Nafarroa edo Iparraldean jaiotakoek, Estatuan jaiotakoek baino ekimen eta elkarte gehiagotan parte hartzen dute eta hauek atzerrian jaiotakoek baino gehiagotan. EH Bilduren boto emaleak nabarmenen, eta Elkarrekin Podemosenak jarraian, dira parte-hartze maila altuena agertu dutenak bi eremu horietan.

Herritarrek konfiantzarik gehien duten erakundeak hurbilekoenak dira, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak (%67k gehienbat konfiantza), Eusko Legebiltzarra (%63), Foru Aldundiak (%62) eta baita GKE-k ere (%55). Aldiz, Diputatuaren Kongresua (%19), bankuak (%15), alderdi politikoak (%14) eta Espainiako erregetza (%12) dira konfiantzarik gutxien jasotzen dutenak. Eusko Jaurlaritzarekiko konfiantza %67 da eta Europako batez bestekoa %34 da.

Parte-hartze zabala hauteskunde deialdietan, nahiz eta politikarekiko interes txikia izan

Politikarekiko nagusitzen den sentimendua konfiantzarik eza da, elkarrizketatutako hamar pertsonatetik bostek hala adierazi dute (%52). Dena den sentimendu hori hobetu egin da, 2015ean %57 zen. Ondoren, nagusitzen diren sentimenduak dira asperdura (%31), haserrea (%28), eta axolagabekeria (%27). Soilik %20k adierazi dute interesa dela nagusitzen zaien sentimendua, eta %16k konpromisoa.

Politikak eragiten duen interesa txikia da (%70ek interes gutxi edo batere interesik ez) eta soilik herritarren %27k adierazi dute alderdi politikoren batekiko hurbiltasunik. Alabaina, %55ek hauteskunde guztietan ematen du botoa eta %16k batzuetan bai, besteetan ez.

Iñigo Urkullu lehendakariak balorazio onenari eusten dio

EAJ-PNV da berriro ere begikotasun handiena sortarazten duen alderdia (4,7 puntu, 0tik 10erako eskalan). Atzetik datoz EH Bildu eta Elkarrekin Podemos (biek 3,7), PSE-EE (3,5) eta Ciudadanos (1,6). PP azken postuan mantentzen da (1,5).

Buruzagi politikoei dagokienez, Urkullu lehendakaria da gai lortzen duen bakarra eta eusten dio puntuaziorik altuenari (5,4 puntu jaso du, 0tik 10erako eskalan). Atzetik datoz Andoni Ortuzar (4,7), Lander Martínez (4,1), Arnaldo Otegi eta Idoia Mendia (biek 4,0) eta azkenik, Alfonso Alonso (1,9).

Independentziarekiko jarrerari dagokionez, herritarren %37 kontra azaldu dira, %29 alde edo kontra egongo lirateke egoeraren arabera eta %22 ados daude. %13k ez dute erantzun.

Neguko eta udako ordu aldaketa kentzearekin adostasuna; udako ordutegia mantentzearen aldekoa

Herritarren erdia (%52) ados dago neguko eta udako ordu aldaketak kentzeko Europako Batzordean egin den proposamenarekin, %24k orain arte bezala jarraitzea nahiago dute eta gainerakoei berdin die. %57 udako ordutegia mantentzearen alde legoke, soilik %13 neguko ordutegiaren alde eta %22ri berdin dio.

Hainbat adituren usteekin bat eginez, gure ordutegia Kanarietakoarekin bat etortzeko ordu bete aurreratzeko aukeraz galdetu zaienean, herritarren iritzia zaituago dago: %21 ados legoke aurrerapenarekin, %36k dagoen bezala mantendu nahi luke eta %31k berdin zaiola adierazi dute.

Ikerketa honen **fitxa tekniko**a zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.149 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 1,8$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2018ko irailak 25 eta urriak 6 bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak